

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

**Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea  
Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación**

**KAZETARITZA**  
IKASTURTEA 2021-2022

**KLIMA ALDAKETAREN COP GOI BILEREN  
ESTALDURA HEGO EUSKAL HERRIKO  
EGUNKARIETAN (El País, Gara, Berria, Diario  
Vasco, Diario de Navarra eta Deia)**

EGILEA: Miren Elortza Alberdi  
ZUZENDARIA: Alazne Ayestaran Yarza

Data, 2022ko Uztailaren 12a

“Gradu Amaierako Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

"La autora o autor del trabajo fin de grado declara que son ciertos los datos que figuran en este trabajo original y propio, asumiendo en caso contrario, las responsabilidades que pudieran derivarse de las inexactitudes que consten en el mismo: plagio, usos indebidos de imágenes, etc. Todas las imágenes son copyright de sus correspondientes propietarios y/o licenciarios. Se incluyen en el presente trabajo bajo finalidad meramente divulgativa para ilustrar el marco teórico o análisis del trabajo".

## **Aurkibidea**

---

<b>Aurkibidea</b>	<b>3</b>
<b>1.SARRERA</b>	<b>4</b>
1.1 Lanaren aurkezpena	4
1.2 Ikerketaren Helburuak	5
1.3 Ikerketaren hipotesiak eta iker galderak	5
<b>2.MARKO TEORIKOA</b>	<b>8</b>
2.1 Gaiaren analisiaren eboluzioa	8
2.2 Gaur egungo analisiaren eboluzioa	10
<b>3. METODOLOGIA</b>	<b>13</b>
<b>4. EMAITZAK</b>	<b>16</b>
<b>5. ONDORIOAK</b>	<b>31</b>
<b>6. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>35</b>
<b>7. ERANSKINAK</b>	<b>37</b>

---

## **1.SARRERA**

---

### **1.1 Lanaren aurkezpena**

---

Jarraian aurkezten den lana gertakizun luzeko gertaera baten segimenduaren ikerketa lan bat da. 1997. urtetik 2021. urtera bitartean ospatu diren, Nazio Batuen Erakundeak antolatzen dituen, Klima Aldaketaren inguruko lau goi bilera aztertzen dira sei egunkari desberdinetan. Aztertu diren goi gailurrak honako hauek dira: Kyoto 1997 (Japonia), Doha 2012 (Qatar), Paris 2015 (Frantzia) eta Glasgow 2021 (Eskozia). Azterturiko egunkariak *El País*, *Gara*, *Berria*, *Deia*, *Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* izan dira. Korrante ideologiko desberdinak dituzten egunkariak aztertzeak naiz hizkuntza hautu desberdina duten egunkariak aztertzeak egoera orokorraren prisma zabalago bat eskaintzen du. Sei egunkari horiek aztertzeak Hego Euskal Herriko biztanleria osoaren lagina eskaintzen du, egunkari gehiago ere badiren arren, hautatutako 6 horiek sentsibiltate ideologiko gehienak biltzen baitituzte bertan, metodologia atalean azalduko den moduan.

Gaia hainbat arrazoi desberdinengatik aukeratu da. Arrazoietakoa bat da aukeraketaren unean 2021 eko Glasgowko goi bilera ospatzera zihoala. Gaurkotasun luzeko gertaera baten segimendua egin behar zenez, une horretan hedabideetan puri-purian zeuden gaurkotasun luzeko gaiak aztertu nituen eta Klima Aldaketaren COP goi bileren gaia, denboran zehar eboluzio bat jasan duen gaia iruditu zitzaidan eta eboluzio hori hedabideetan nola komunikatu den aztertzea interesgarria iruditu zitzaidan.

Azken 30 urteetan Klima Aldaketa kontzeptua gizartearen hiztegian oso barneratuta dagoen kontzeptua da. Lehen aldiz kontzeptua prentsan agertu zenetik gaur arte, gaiari buruz dakiguna ikaragarri hazi eta aldatuz joan da. Prentzari erreparatzen badiogu, Klima Aldaketak gizartean denboran zehar izan duen garrantzia ikusi ahal izango da, prentsa izan baita urte luzez informazioa eskuratzeko modua eta gizarteari interesatzen zaizkion gai garrantzitsuenen plataforma. Bernard Cohen, agenda setting-aren bultzatzaile nagusienetarikoak honela dio: “ Hedabideek maiz ez dute arrakastarik izaten jendeari zer pentsatu esaten dietenean, baina arrakasta txundigarria dute zeri buruz pentsatu behar duten esatean”. (Aruguete, 2009 : 19).

Zientzialarien komunitate handienak dioenez, arazoa geroz eta larriagoa da. Azken hamarkadan gizakiaren esku-sartzearen eraginez, bai airera, lurrera eta itsasora isuri diren gas eta beste hainbat produktu kaltegarriren kopurua inoiz baino handiagoa da eta arazoak ez du konpontzeko itxura errazik. Hori kontuan hartuta, gaiaren larritasuna azken 30 urteetan handiagotzen joan denez, honek hedabideetan bere isla izan beharko lukeela suposatzen da eta hori aztertzea da helburuetako bat.

Ikerketa lan honetan analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dira. Analisi kuantitatiboak egunkari desberdinen eta COP goi bilera desberdinen arteko konparaketa kuantitatiboa egiteko balio du. Denboran zehar COP goi bilera bakoitzean eta egunkari desberdinek erabilitako terminologiaren analisia analisi kualitatiboaren bitartez egingo da; terminologiaren eboluzioa eta egunkari bakoitzak termino desberdinen aurrean egiten duen hautua aztertu ahal izango da.

## 1.2 Ikerketaren Helburuak

---

Ikerketaren helburu nagusia da, aukeratu diren COP goi bilera horiek (Kyoto 1997, Doha 2012, Paris 2015 eta Glasgow 2021) denboran zehar izan duten tratamenduaren eboluzioa aztertzea eta Nazio Batuen Erakundearen Klima Aldaketaren goi gailurrari Hego Euskal Herriko prentsan eman zaion tratamendua eta estaldura aztertzea, egunkariaren arteko konparaketa kuantitatibo eta kualitatibo bat eginez.

Beste alde batetik, *El País, Gara, Berria, Deia, Diario Vasco eta Diario de Navarra* egunkariak 1997 Kyoto, 2012 Doha, 2015 Paris eta 2021 Glasgown izandako goi gailurrek irauten duten hamabostaldian, egunkari bakoitzak bere barnean izan duen terminologia eta tratamenduaren eboluzioa aztertzea izan da helburu. Klima aldaketari buruzko informazioa eta terminologia aldatzen doan heinean, aztertutako egunkariak aldaketa horiek onartu eta barneratzen dituzten ikusi ahal izango da, urtez-urteko konparaketa bat eginez. Izan ere, terminologiaren eboluzioa aztertzea ere interesgarria da. “Aldaketa klimatikoa” eta “berotegi efektua” terminoen agerpenetik “krisi klimatikoa” eta “larrialdi klimatikoa” terminoetara garapen eta eboluzio bat egon da eta egunkari bakoitzak honen aurrean egiten duen hautua aztertzea ere bada helburu. Termino batzuk zaharkiturik gelditzen dira eta horrek beste berri batzuen erabilera dakar. Aztertu diren egunkariak prentsa idatzikoak direnez, oso esanguratsua da bakoitzak erabiltzen duen terminologia, hitza baita prentsaren erraminta garrantzitsua.

Era berean, eduki-analisiaren bitartez, egunkari bakoitzean aztergai den gaiak kazetaritza-generoa, sekzioa, tamaina, orrialdea, azalik duen ala ez, sekzioa irekitzen duen ala ez, grafika edo argazkirik duen ala ez aztertu da. Ideologia desberdinetako eta hizkuntza hautaketa desberdina duten egunkariak aztertu direnez, honek aukera emango digu Klima Aldaketaren gaia ideologia desberdinetan mugitzen den gaia den edo ez jakiteko, baita ea pentsamendu korrante desberdinen artean gaiarekiko zer ideia dagoen jakiteko. Aukeratu ditugun egunkariak Hego Euskal Herriko biztanleriaren lagin osoa biltzen dutenez, Euskal Herriko ideologia desberdinetako jendearen artean gaiarekiko desberdintasunik ba ote dagoen aztertzea izan da beste helburuetako bat.

## 1.3 Ikerketaren hipotesiak eta iker galderak

---

Aurretik aipatutako helburuei lotutako hipotesiak eta horiei lotutako iker-galderak proposatuko dira.

H1. Aurreikusitako daiteke, 1997an Kyotoko gailurra ospatu zenetik, 2021. urtean Glasgown azken Klima Aldaketaren Nazioarteko gailurra ospatu arte informazioen kopuruak gora egin duela aztertutako hedabide

guztietan: *El País, Gara, Berria, Deia, Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* egunkarietan. Analisi kuantitatiboari lotutako hipotesia da hau.

IG1. Zein izan da egunkari bakoitzaren eboluzioa Klima Aldaketaren goi gailur ezberdinetan?

IG2. Zenbat item kaleratu ditu egunkari bakoitzak orotara?

IG3. Zenbat item kaleratu ditu egunkari bakoitzak Klima Aldaketaren goi gailur bakoitzean?

H2. Bizi garen gizartean dena politizatzen da, edozein ekimenen atzean interes ekonomiko eta interes sozial desberdinak aurkitu baitaitezke. Ingurumenaren gaia betidanik ezkerreko korrante ideologikoetara lotuago egon da eskuinekoetara baino. Horren harira *Gara, Berria* eta *El País* egunkariak *Deia, Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* egunkariak baino testu kopuru handiagoa kaleratu dutela aurreikusi daiteke.

IG4. Zenbat item kaleratu dituzte *Gara, Berria* eta *El País* egunkariak Klima Aldaketaren Nazioarteko goi-gailur bakoitzean?

IG5. Zenbat testu kaleratu dituzte *Deia, Diario Vasco* eta *Diario de Navarra* egunkariak Klima Aldaketaren Nazioarteko goi-gailur bakoitzean?

IG6. Ba al dago ezberdintasunik item kopuruari dagokionez ildo ideologiko ezkertiarra duten eta ildo ideologiko eskuindarra duten egunkarien artean Aldaketa Klimatikoaren gaiaren estaldurari dagokionez?

H3. Gaiari buruzko testu kopuruak gora egin duela uste den moduan, gaiak izan duen tratamendua eta estaldura handiagoa izan dela uste da. Hots, urteak aurrera joan ahala, argitaratu diren edukien kazetaritza generoak orain lehen baino espektro zabalagoa hartzen duela, genero gehiago eskainiz gaiari. Ildo beretik, aztertu diren azken gailurretako testuek argazki, infografia eta grafiko gehiago izango dituztela uste da, baita azalean agertzen diren informazioen kopurua ere altuagoa dela. Orokorrean, azterturiko lehenengo gailurrekin konparatuz gero, edukien prisma zabalago bat eskaintzen zaiola uste da, bai kazetaritza genero anitzagoa, informazioak kokaturiko sekzioen aniztasuna eta gaiarekiko argitaratu diren mota guztietako irudi kopurua ere.

IG7. Egunkari bakoitzean zein da kazetaritza-genero bakoitzaren testu portzentajea eta kopurua?

IG8. Egunkari bakoitzean zenbat item argitaratu dire azalean?

IG9. Egunkari bakoitzean zenbat item kaleratu dira orri bakoiti eta bikoitietan?

IG10. Egunkari bakoitzean kaleratu diren itemen artean zenbat dira orrialde erditik gorakoak?

IG11. Egunkari bakoitzean zenbat testuk dute argazki, infografia, grafiko edo irudirik?

H4. Azken garaiotan “Krisi klimatikoa” edo “larrialdi klimatikoa” terminoen erabilpena nazioartean hedatzen ari denez, aztertu ditugun egunkarietako termino hauen erabilpenen hautua egin dutela uste da. Nahiz eta “klima aldaketa” terminoa asko erabiltzen den, aztertu ditugun egunkarietako termino berrien erabilpena sustatzen dutela uste da.

IG12. Zenbat aldiz erabiltzen du egunkari bakoitzak titulu eta azpitituluan “Krisi klimatikoa” edo “larrialdi klimatikoa” terminoa?

IG13. Zein izan da egunkari bakoitzean termino horien garapena urteetan zehar?

IG14. Zenbat aldiz erabiltzen du egunkari bakoitzak titulu eta azpitituluan “klima aldaketa” terminoa?

IG15. Zein izan da egunkari bakoitzean “klima aldaketa” terminoaren garapena urteetan zehar?

## 2.MARKO TEORIKOA

---

### 2.1 Gaiaren analisiaren eboluzioa

---

Gaiaren analisi zehatz eta zuzen bat egin ahal izateko, ezinbestekoa da lehenbizi COP goi bilera zer diren eta nondik datozen azaltzea. 1988an Nazio Batuen Erakundeak (NBE), Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldea osatu zuen, IPCC gaztelaniazko sigletan. Taldearen helburua informazio zientifikoa, teknikoa eta sozioekonomikoa aztertzea da Klima Aldaketa hobeto ulertu ahal izateko eta honen aurrean erabaki finkoak hartu ahal izateko (León, 2013). Gobernu arteko ikerlari talde honek ebaluazio txostenak argitara ematen ditu. Lehenengo txostena 1990. urtean argitaratu zenetik laugarren txostena 2014. urtean argitaratu zen arte, urtez-urte larritasuna areagotzen joan da. Lehenengo txostenean Klima Aldaketa gizakiaren esku-sartzearekin erlazionatuta dagoen arrastoa agertzen da. Bigarrenean arrasto horiek areagotzen doazela azaltzen du txostenak. Hirugarrenean gizakiaren esku-sartzea gertagarria dela esaten da eta laugarrenean, berriz, oso gertagarria dela (León, 2013). Gobernu arteko ikerlari talde honek munduan zehar beste hainbat zientzialari eta ikerlarik egiten dituzten ikerketa eta lanak aztertuz egiten dute lan, munduko txoko desberdinetan, ingurumenaren esparruan gauzatzen ari diren ikerketetaz baliatzen dira NBE txostena burutu ahal izateko. Honenbestez, IPCC taldearen txostenak dioena, gaiarekiko munduko aditu nagusienek bermatzen dute (León, 2013).

COP goi bilera beraz, NBEak antolatzen duen Klima Aldaketaren aurrean neurriak hartzeko bilera da. Lehendabiziko goibilera, COP1, Berlinen gauzatu zen 1995. urtean. Berlinen gauzatu zen lehen goi bilera horren aurrekariak ere badira ordea. Aurrekari garrantzitsuena 1972. urtean Stockholmen (Suedia) ospatu zen Ingurumenaren Batzarra da, 1972ko Ekainaren 5 eta 16 egunen bitartean hain zuzen ere. 113 herrialdetako ordezkariak, gobernuarteko 19 ordezkariak eta gobernu kanpoko edo gobernu arteko 400 erakunde baino gehiagok hartu zuten parte bertan. Ingurumenaren eta garapenaren inguruko 26 printzipiodun adierazpena hitzartu zen eta baita 109 gomendiodun ekintza plan bat adostu (Villalta-Bellón, 2020).

Stockholmen gauzatutako Ingurumen Batzarraz geroztik badirudi iritzi publikoaren kontzientzietan aldaketa klimatikoaren ideia gelditzeko etorri zela. Espainiar estatuan, Europako beste herrialde batzuetan baino beranduxeago hasi zen Klima Aldaketaren inguruko estaldura. 70. hamarkada horretan sortu zen *El País* egunkaria, 1976. urtean. Egunkariaren lehenengo hilabete horietan lurraren berotzeari buruzko bi informazio aurkitzen dira. Bata Benito R. Mallolek idatzitako artikulua da. “*La tierra se calienta*” izenburupean, atmosferaren desegitea sorrarazten duten osagaien arteko “kausa efektu” erlazioa aztertzen du. Bigarrena berriz Alfonso Garciak idatzitako erreportajea da. “*El clima va a cambiar*” izenburua duena (Fernandez Reyes, 2010). Hala eta guztiz ere, garai honetan klima aldaketari buruz argitaratzen diren informazioak ez dira batere ugariak. Ikerketa lan hau egiteko aukeratutako egunkarietatik estalduraren hasierako urte horietan egunkariak martxan ziren arren, *El País* egunkariari buruzko informazio besterik ez da aurkitu. Egunkariaren lehengo 10 urteetan klima aldaketari buruzko 15



aipamen besterik ez dira agertzen. 1988. urtean Nazio Batuen Erakundearen Ingurumen programak sortutako Gobernu Arteko Taldea (IPCC) sortu zen urtean 4 besterik ez dira gaiari buruzko aipamenak (Mercado, 2012). COP goibileren bigarren aurrekaria 1992 an Rio de Janeiro (Brasil) ospatu zen Lurraren Gailurra (Cumbre de la Tierra) izan zen. Ingurumenaren aldeko nazioarteko lehenengo mugarriztat jotzen da, nahiz eta 1972an Stockholmen ospatu zen batzarra izan historian lehendabiziko Ingurumenaren inguruko nazioarteko batzarra. El País egunkaria klima aldaketaren gaiari estaldura handiagoa ematen hasi zitzaion Lurraen Gailurra gauzatu zenetik; urte horretan gaiari buruzko 62 aipamen aurkitu daitezke egunkarian eta urteak aurrera joan ahala, kopurua handiagotzen doa. 1995. urtean 96 dira klima aldaketaren gaiari buruz egunkariak agertzen diren informazio edo aipamenak (Mercado, 2012).

1995. urtetik aurrera klima aldaketari buruzko aipamen eta informazioak ugartuz joan ziren, gehienbat isurketen murrizketari eta ozono geruzaren suntsiketaren ingurukoak. Estalduraren gorakada hori 2007. urtera arte ikusi daiteke. Europa osoan ikusi daiteke gorakada hori. 2007. urtea esanguratsua izan zen klima aldaketaren estaldurari dagokionez, izan ere Al Gore, Amerikako Estatu Batuetako lehendakariordeak *Una verdad incómoda* dokumentala kaleratu berri zuen, Klima aldaketaren arazo erraldoiari buruz hitz egiten zuen dokumentala eta Oscar saria jaso zuen lan horri esker. Horrek gaiarekiko interesa piztu zuen gizartearen artean. Gobernu Arteko Ingurumen Taldearen laugarren txostenaren publikazioak ere gaiarekiko interesa areagotzea ekarri zuen (Mercado, 2016).

XX. mendeko aurrerapen teknologiko eta zientifikoei esker, gizabanakoen ezagutza kopurua ikaragarri hazi da. Gizartearen ezagutza maila hazten doan heinean egunkariak eta, honenbestez, kazetariak ezagutzen eboluzio horretara egokitu behar dute. Informazioa eta ezagutza maila handitzen doan heinean kazetaritza espezializatuz joan da euskarri desberdinetan (Fernandez, 2003).

Klima aldaketarekin lotutako informazioak *Gizartea* sekzioan kokatzen dira gehienbat. Horren arrazoia da sekzio honek osasuna, hezkuntza eta ingurumena bezalako gaiak hartzen dituela bere barnean baina Miriam Jemio Klima Aldaketaren Boliviako Plataformako teknikariaren esanetan, sekzio honetan gehien gailentzen diren gaiak osasuna eta hezkuntza izaten jarraitzen dute (Pacto Natural, 2021).

Honen aurrean ingurumenari buruzko informazioa lantzeko azken urteetan geroz eta gehiago dira espezializazio hori lantzen ari diren profesionalak eta *Ingurumen kazetaritza* espezializatu bati buruz eta hau nola landu eta komunikatu aztertzen dabilzan akademikoak.

## 2.2 Gaur egungo analisiaren eboluzioa

Hainbat dira azken hamarkadetan prentsan, nagusiki hedabide handienetan, klima aldaketari eman zaion estaldura ikertzeko egin diren lanak. Aurretik egindako lan horiek aztertzea oso interesgarria da burutzen ari garen ikerketa hobeto ulertu ahal izateko. Gaiari buruz aurkitu diren ikerlan ia denak gaztelaniazko lanak dira, eta honenbestez, Espainiako eta nazioarteko hedabideen inguruko analisiak. Bada 2022an kaleratutako lan bat: Angela Alonso Jurnet eta Ainara Larrondo Uretak eginikoa non Euskal Irrati Telebistak (EITB) klima aldaketari buruz erabili duen informazio tratamendua aztertu eta lantzen duena baina garatzen ari garen ikerketa lana prentsa idatzikoa denez, ez diegu lan horren emaitzei erreparatuko. Aurkitu eta aztertu diren beste lan guztiak gaztelaniazko lanak dira eta, lehen aipatu bezala, Espainiako hedabide edo nazioarteko hedabideek gaiari ematen dioten tratamendua eta estaldura jorratzen dira.

Hedabideek iritzi publikoan duten eragina ukalezina da eta beraz gaien tratamendu egoki bat egiteak jorratzen ari garen gaia hobeto ulertu, aztertu eta barneratzeko balio du. 2012an Ikerketa Soziologikoko Zentroen Barometroak eskainitako ikerlan batean, inkestatuena % 84.9ak helarazi zuen, ingurumenarekin zerikusia duten gaiei buruzko informazioa lortzeko lehenengo iturria hedabideak zirela (Mercado, 2012). Informazio tratamendu egokiak ingurumen gaiekiko ezagutza handiagoa bermatzen du eta horrek kontzientziazioa areagotzen du gizartean. Beraz, hedabideek giza errealitatearen eraikuntzan funtsezko rol bat betetzen dute eta Mercadoren hitzetan, ezinbestekoa da hedabideek “zer kontatzen duten jakitea” gizartearen jokabideak hobeto ulertu eta honen aurrean erabakiak hartu ahal izateko (Mercado, 2012: 124).

Ikerketa lan honetan, Kyoton 1997, Dohan 2012, Parísen 2015 eta Glasgown 2021 ospatutako klimaren gailurrek irauten duten hamabostaldian hedabide idatziek honi eman dioten estaldura aztertuko dugun arren, interesgarria da Fernandez Reyesek 2010. urtean egindako 1992 eta 2008 urteen arteko prentsa editorialen azterketaren ikerketari erreparatzea. Argi ikus dezakegu, urte horietan gaiak izan dituen estaldura unerik handienak 1992tik 1999ra bitarteko gailurren datekin bat datozela. Denbora tarte horretan estaldura handiena jaso zuten uneak 1992ko *Lurraren Gailurra (Rio 1992)*, Nazioarteko Ingurumen Gobernu arteko taldearen (IPCC) bigarren txostenaren argitalpena eta 1997ko Kyotoko gailurra izan ziren. Gaiari buruz informazio gehien argitaratu da azaroan eta abenduan. Hilabete horietan osoatu baitira Klima Aldaketaren inguruko Nazioarteko gailurrak (Fernandez-Reyes, Piñuel- Raigada, Vicente Mariño, 2015).

Klima aldaketaren gaiak hedabideetan izan duen estaldurak beheazko eta gorazko etapak izan ditu. Lehenengo etapa bat 2000. urtetik 2006. urtera kokatzen dute Fernandez-Reyes, Piñuel-Raigada eta Águila Coghlan ikerlariek. Estaldura txikiko etapatzat jotzen dute. Denbora tarte horretan hainbat gailur ospatu ziren eta nahiz eta ez izan guztiak Klima Aldaketaren Nazioarteko gailurrak, gaiari buruzko estaldura bat dator gailurren datekin. Etapa honetan lehenengo “egonkortasun” fase bat ikusi ahal da

2000 eta 2003 urteen bitartean eta bigarren fase bat 2004tik aurrera, estalduraren igoyerarekin (Fernandez-Reyes, Piñuel-Raigada, Águila Coghlan, 2017).

2006 urtetik aurrera estaldura mediatikoaren gorakada gertatzen da. Horren arrazoi nagusienetako bat Klima Aldaketaren Gobernu Arteko Taldearen IV. txostenaren argitalpena da. Beste arrazoietakoa bat da Al Gorek, Amerikako Estatu Batuetako lehendakariorde ohiak, *Una verdad Incomoda* dokumentala estreinatu zuela, Klima Aldaketak munduan eta honenbestez gizartean izango dituen eraginak azaltzen zituena (Fernandez-Reyes, Piñuel-Raigada, Águila Coghlan, 2017).

2007 klima aldaketaren estaldura mediatikoaren urtea izan zen. 2007ko otsailean aurkeztu zen Parisen Klima Aldaketaren Nazioarteko Gobernu arteko Taldearen (IPCC) IV. txostena eta honek oihartzun handia izan zuen. Kontuan hartzekoa da baita 2007. urteko Bakearen Nobel Saria. Hau, Al Gore eta Klima Aldaketaren Nazioarteko Gobernu arteko Taldearen artean partekatu zuten ingurumenaren aldeko kontzientziazioan egindako lanagatik (Fernandez-Reyes, Piñuel-Raigada, Vicente-Mariño, 2015).

Espainia ez da nazioartean ikerlari tradizio handiena duen herrialdea. Baina, mendebaldeko gizarteko ikerlari tradizio handiena duten herrialdeekin konparatuz gero, AEB, Britainia Handia eta Kanada, lau herrialdeen artean desberdintasun handirik ez dagoela hauteman daiteke. Ingurumenak eremu zientifikoa, politikoa eta mediatikoa hartzen ditu bere baitan eta nazioarteko gertaera politiko zein mediatikoek gaiarekiko estalduran eragina dutela ikusten da (Fernandez-Reyes, Piñuel-Raigada, Vicente-Mariño, 2015).

Fermin Koop ingurumen gaietan espezializatutako kazetariaren iritziz, klima aldaketa hedabide batean dauden sekzio guztietako gai “transbertsala” da. “Ez da zientzia edo ingurune sekzioetako gai bat soilik. Politika, ekonomia eta hein batean gastronomia ere bere barnean hartzen ditu. Oso gai zabala da. Edozein hedabidetara zabaldu daitekeen gaia da eta eta estaldura horrek presente egon behar du kazetarien lanbidean” (Pacto Natural, 2021).

Gaiarekiko kontzientziazio kolektibo bat gertatu ahal izateko ezinbestekoa da informazioaren kalitatea ona izatea. Kalitate ona izateak esan nahi du gaia testuinguruan kokatzea eta momentuko gertaera edo informazio hori hobeto ulertu ahal izateko aurrekariak aztertzea. Bienvenido León eta Alicia Lara ikertzaileek 2013. urtean Nafarroako Unibertsitatearentzat eginiko lan batean, gaiaren aurrekariak eta hau testuinguruan jartzen duten informazioen kopurua urria dela eta hori denbora falta edo kazetarien espezializazio faltarengatik izan zitekeela ondorioztatu zuten (León, & Lara, 2013).

Orain arte aurkitutako lanetako ikerlari guztiak bat datoz gaiarekiko estalduraren kalitatea bermatzea ezinbestekoa dela gizartek gaiarekiko kritika konstruktibo bat egin

eta honen aurrean irtenbidea aurkitu ahal izateko. Klima aldaketaren komunikazio egoki baten beharra premiazkoa da gizarteak arazoaren tamaina ulertu ahal izateko, beraz, hedabideek azaroarekiko duten papera estrategikoa da (Heras, Meira, & Álamo, 2016).

Terminologiaren eboluzioa ere kontuan hartzekoa da. Hainbat izan dira gaia gizartean barneratu ahal izateko erabili diren termino desberdinak. “Klima Aldaketa” hitza Wallace S. Broecker zientzialariak erabili zuen lehenengo aldiz 1975. urtean argitaratutako artikulu batean<sup>1</sup>. Hedabide batzuk 70 eta 80. hamarkadan hasi ziren “berotegi efektua” terminoa erabiltzen. Hitz honen erabilerak gas kutsakorrek ozono geruzan duten eragina modu erraz eta ikusgarri batean irudikatu ahal izatea lortu zuen. Gizartean beste erabilpen bat zuen zerbait hartu, nekazaritzako berotegiak, eta honen funtzioa ozono geruzara estrapolatzea lortu zuen terminoak. Honela “berotegi efektua” erabiltzean, gizartearen irudimenean ozono geruzan zulo bat irudikatzea lortu zuen (Erviti, 2020). Azken urteetan hainbat dira “krisi klimatikoa” edo “larrialdi klimatikoa” terminoak erabiltzera pasa diren hedabideak.

Urte gutxiren barruan hedabideen hiztegiaren barnean sartu diren terminoak dira hauek. Arrakastatzat jo daiteke hau, denbora tarte oso txikian sartu baitira hedabideen hiztegiaren eta nabarmentzeko moduko argitalpenen kopuruarekin. Hala eta guztiz ere “Klima aldaketa” terminoa gizartean urte luzez barneratuta dagoen terminoa da eta beraz erabiliagoa da. “Berotegi efektua” eta “Berotze globala” terminoak zaharkiturik gelditu direla pentsa daitekeen arren, bi eta hirugarren postuak hartzen dituzte termino hauek “Klima aldaketa” terminoaren atzetik (Erviti, 2020).

---

<sup>1</sup> “*Climate Change: are we on the brink of a pronounced global warming?*”, *Science* aldizkarian (Erviti, 2020).

### 3. METODOLOGIA

---

Ikerketa lan hau burutzeko aukeratu ditugun egunkariak Hego Euskal Herriko biztanleria osoaren isla dira. Euskara hutseko, elebidun eta gaztelania hutseko egunkariak aukeratu dira. Aztertu nahi den ikerketa lagina Hego Euskal Herriko prentsa idatziko hedabideek klima aldaketaren gaiari eman dioten estaldura baita. Horrexegatik aukeratu dira 6 egunkari:

1. *El País*: Gaztelania hutseko espainiar egunkaria. Ideologia zentro ezkertiarra, zentro aldera gehiago hurbilduz. betidanik PSOE (Partido Socialista Obrero Español) alderdiari lotua egon da.
2. *Gara*: 1998. urtera arte *Egin* izena zuen egunkariak, 1998an Baltasar Garzón epailearen aginduz itxi zen. Egunkari elebiduna da, historikoki ezker abertzaleari lotua, Euskal Herriko zazpi probintzietan argitaratua.
3. *Berria*: *Euskaldunon egunkaria* izena zuen 2003 an Juan del Olmo epailearen aginduz Guardia Zibilak itxi zuen arte. Euskara hutsean Euskal Herriko 7 probintzietan argitaratzen den egunkari bakarra da. Euskaldunentzat eginiko egunkaria da eta ideologia desberdinak hartzen ditu barne baina korronte ideologiko ezkertiarretara lotua dagoela esan daiteke.
4. *Deia*: 1977an sortua. Ideologia nazionalista euskalduna duen egunkaria da. Elebiduna den arren, informazioen gehiengoa gaztelaniaz argitaratzen da. Historikoki Eusko Alderdi Jeltzaleari (EAJ\_PNV) lotuta egon da. Korronte ideologiko eskuina bezala klasifikatuko genuke.
5. *Diario Vasco*: 1934 an sortua. Ideologia zentro eskuindarra eta katoliko monarkikoa du. Gipuzkoako biztanleei lututako egunkaria da, Bizkaiko El Correo-ren pare. Vocento komunikazio taldearen parte da gaur egun, biak ala biak.
6. *Diario de Navarra*: 1903an sortua, Iruñan. Espainiar estatuko egunkari zaharrenetarikoa da, lehen argitalpenetik ez baitu etenik jasan. Ideologia kontserbadorea eta foralista duen egunkaria da eta UPN (Unión del Pueblo Navarro) alderdi politikoarekin bat dator.

Aukeratu diren egunkariak prentsa idatzikoak direnez, ikerketa lantzeko behar diren informazioak Hemerotekan aurkitu dira. Leioako EHUKo liburutegiko hemerotekara joan behar izan da edukiak bilatu ahal izateko. Aztergai hartu diren denbora tarteak Klima Aldaketaren Nazioarteko gailurrek irauten duten hamabostaldia izan da, gailurra hasi baino bi egun lehenagoko eta amaitu eta ondorengo bi egunetako argitalpenak aztertuz. Hau da, Kyotok gailurra 1997ko abenduaren 1etik 10ra bitartean izan zen eta aztergai izan dugun denbora tarte beraz 1997ko azaroaren 28tik 1997ko abenduaren 12ra izan da. Dohako gailurra 2012ko azaroaren 26tik 2012ko abenduaren 7ra ospatu zen eta aztergai izan dugun denbora tarte 2012ko azaroaren 24tik 2012ko abenduaren 9ra izan da. Aztergai izan den hirugarren gailurra Parisen 2015. urtean ospatutakoa izan da. Honek 2015eko azaroaren 30tik 2015eko abenduaren 12ra iraun zuen, beraz

azaroaren 28tik abenduaren 14ra izan da aztergai izan dugun denbora tartea. Azken gailurra 2021. urtean Glasgown ospatu zen. 2021eko urriaren 31tik 2021eko azaroaren 12ra bitartean ospatu zen eta aztergai izan den tartea urriaren 29tik azaroaren 14ra bitartekoa izan da. Bi egun lehenagoko tartea hartu dugu gailur bakoitza hasi aurretik, tarte bat finkatu beharra dagoelako. Gailurren aurretiko edo ondorengo estaldurari buruzko informazioa lortzea ere interesgarria izango litzateke baina ikerketa lan honetan gailurren inguruko estaldura aztertzen da beraz aurretik bi egun eta atzetik bi eguneko tartea eman zaio.

Lan honetarako erabili den metodologia eduki-analisia izan da. Eduki-analisia komunikazio alorreko edukiak modu objetibo, kuantitatibo eta sistematiko batean ikertzeko lan-teknika bat da. Bernard Berelson soziologo estatu batuarra izan zen eduki mota honen definizio bat ezarri zuena baina Harold Lasswell, komunikazio teoriar aitzindaria, izan zen metodoaren ezaugarriak finkatzen lehena (Zabaleta, 1997). Metodo honekin edukiak multzo desberdinetan sailkatzearen bidez egiten da ikerketa. Eduki-analisiaren helburu nagusienetako bat hipotesien frogatzea edo baztertzeta da (Aigeneren, 1999). Horregatik aukeratu da metodo hau, aurretik aipatu diren hipotesiak frogatu edo baztertu ahal izateko modurik objektiboena dela iritzi baita. Analisi mota honen bidez eginiko ikerketa baten emaitzak berdintsuak izan beharko lukete etorkizunean ikerketa errepikatuz gero (Zabaleta, 1997). Aztertu diren egunkari desberdinetako edukiak ikertu eta konparatu ahal izateko teknika hobereana delako aukeratu da eduki-analisiaren metodoa.

Hemerotekan aurkitu dira egunkariak, batzuk digitalizatuak, PDF artxibo moduan eta beste batzuk berriz egunkari fisikoetan. Bi kasuetan egunkariak miatuz, Klima Aldaketaren Gailurrei buruzko informazio guztiak hartu dira, batzuk PDF artxiiboak kopiatuz eta beste batzuk berriz egunkari fisikoei ateratako argazkien bidez.

Material guztia izan ondoren, kodifikazio fitxa betetzea izan da hurrengo pausoa. Excel kalkulu orrien bidez egin da. Aldagai desberdinak finkatu dira kodifikazio fitxan. Aldagai bakoitzak informazio desberdina ematen du horrela guztiak konparatuta gaiari eskaini zaion estalduraren ikuspegi zabal eta orokorragoa ematen da. Aukeratu diren aldagaiak anitzak dira:

1. Item zenbakia: Informazioen kopuruaren analisi kuantitatiboa egin ahal izateko, egunkari bakoitzak zenbat informazio argitaratu dituen jakin ahal izateko.
2. Egunkariaren izena
3. Data
4. Titulua
5. Aurretitulua edo Azpitulua
6. Sekzioa: gizartea, iritzia, eguneko gaia, nazioartea, ingurumena, kontra-azala, mundua eta beste bat.
7. Tamaina:  $\frac{1}{4}$  baino gutxiago,  $\frac{1}{4}$  eta  $\frac{2}{4}$  artean,  $\frac{2}{4}$  eta  $\frac{3}{4}$  artean,  $\frac{3}{4}$  baino gehiago baina ez orri osoa, orrialde osoa eta orrialde osoa baino gehiago.

8. Azala: bai edo ez
9. Irekiera: bai edo ez
10. Orrialdea: bakoitia edo bikoitia
11. Kazetaritza generoa: albistea, laburra, foto-notizia, erreportajea, elkarrizketa, kronika, analisia, editoriala, artikulua, zutabea, gutuna, bineta eta beste bat.
12. Argazki kopurua
13. Grafiko kopurua
14. Infografia kopurua
15. Irudi kopurua guztira
16. Oharrak: Bertan terminologiaren inguruko desberdintasunak aipatu ditugu, “Krisi klimatikoa” edo “larrialdi klimatikoa” ren erabilpenak. Baita aurreko aldagaietan aipatzen ez dena bada


Aldagai guzti horien konparaketak estalduraren ikuspegi zabala eskaintzen du. Urtez urte eta egunkari bakoitzean eman diren desberdintasunen arteko konparaketa egiteko aukera ematen du. Guztira 590 item aztertu dira Excel Kalkulu orrien bitartez. Egunkari eta urte desberdinen arteko konparaketak egiteko grafikoak egin dira, baita kuantitatiboki eginiko taula dinamikoak ere.

Datu guztien grafikak eta taula dinamikoak izan ondoren, emaitzak aztertzea izan da hurrengo pausoa, azkenik, ondorioak atera ahal izateko.

#### 4. EMAITZAK

Jarraian, aurreko atalean azaldutako eduki-analisiaren metodologia erabilia, excel orrian kodifikatu diren datuetatik lortutako emaitzak aurkezten dira:

##### 1.Grafika: 1997, 2012, 2015 eta 2021. urteko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurraren inpaktua



Iturria: autoreak landua

Grafika honekin aztertutako egunkari guztiek argitaratu dituzten informazio kopuruen kontaketa osoa egiten da, aztergai diren lau urteak kontuan hartuta. Lehen begiratuan argi eta garbi ikusten da *El País* egunkaria dela aztergai ditugun datetan gaiari estaldura handiena eman dion egunkaria 145 testu ezberdinekin (informazio eta iritzi testuak baitira). Grafikari erreparatuta, informazio gutxien argitaratu dituzten egunkariak *Egin* eta *Euskaldunon Egunkaria* direla ikusten da baina egunkari horien jarraipenak direnez bai *Gara* eta bai *Berria* bien arteko batura da datu inportantea. *Egin* eta *Gara* egunkarien artean 84 informazio argitaratu dituzte guztira. *Euskaldunon Egunkaria* eta *Berriaren* batura eginez gero 73 argitalpen hedatu ditu. 100 argitalpen baino gehiago eskaintzen dituen beste egunkaria *Deia* da (110). Geratzen diren egunkariak 100 argitalpen baino gutxiago eskaini dizkiote gaiari; *Diario de Navarra* (84) eta *Diario Vasco* (93). Beraz, aztertutako lau urteetako gailurretan estaldura handiena eskaini dion egunkaria *El País* izan da, alde nabarmenarekin (*Euskaldunon Egunkaria* /*Berria* baino 72 argitalpen gehiago eta *Deia* baino 35 argitalpen gehiago). Bere atzetik *Deia*, *Diario*




*Klima Aldaketaren COP goi bileren estaldura Hego Euskal Herriko egunkarietan (El País, Gara, Berria, Diario Vasco, Diario de Navarra eta Deia*

*Vasco* doaz. *Diario de Navarra* eta *Egin/Gara* egunkariak informazio kopuru berdina eskaini diote gaiari eta gaiarekiko inpaktu txikiena izan duen egunkaria *Berria* egunkaria izan da. Datu hauei erreparatzerakoan kontuan hartu beharrekoa da egunkari bakoitzaren tamaina ere, ez baita gauza bera *El País* bezalako egunkari nazional batek duen tamaina edo *Gara* edo *Berria* bezalako egunkariak izan dezaketen tamaina.

## 2.Grafika: 1997ko Kiotoko gailurraren inpaktua

### 1997 KIOTO




Iturria: autoreak landua

Inpaktuarekin jarraituz, 1997ko Kiotoko gailurrean gaiarekiko estaldura handiena eskaini zuen egunkaria berriz ere *El País* dela ikus daiteke, zenbaketa orokorrean bezala. Aztertutako testu guztien %27.5a argitaratu zuen *El País*ek, 33 guztira. Atzetik *Egin* egunkaria da testu gehien argitaratu zituen egunkaria, informazioen % 19.2arekin, hau da, 23 testu guztira. *Diario Vasco*k edukien %17.5 hartzen du bere baitan, 21 argitalpenekin. *Diario de Navarra*, *Deia* eta *Euskaldunon Egunkaria* dira argitalpen gutxien eskaintzen dituzten egunkariak, hirurak informazioen % 15a baino urriago argitaratu zituzten. *Deiak* (17 item), *Diario de Navarrak* (14 item) eta *Euskaldunon Egunkariak* (12 pieza). Grafika honi erreparatuz gero ere argi ikusten da estaldura handiena eskaini duen egunkaria *El País* egunkaria dela.

### 3.Grafika: 2012ko Dohako gailurraren inpaktua

#### 2012 DOHA




Iturria: autoreak landua

2012. urtean Kiotoko gailurrekiko desberdintasun nabarmenak antzeman daitezke grafikoan. Hasteko, egunkari bat gutxiago agertzen da, *Deia* egunkariak ez baitzion inongo argitalpenik eskaini Dohan 2012an ospatu zen Klima Aldaketaren Nazioarteko gailurrari. Aurreko grafikoan bezala *El País* da argitalpen gehien dituen egunkaria, argitaratu ziren testuen ia erdiarekin % 47.4. Argitaratutako testu guztien ia erdia *El País*ek argitaratu arren, hauek 9 pieza dira, 1997an Kiotoko gailurrari buruz argitaratu zituztenen  $\frac{1}{3}$  bat gutxi gora behera. 2012. urtean egunkari guztietan ikus daiteke estalduraren beherakada itzela. *Berria* da *El País*en atzetik testu gehien eskaini zituen egunkaria, baina argitalpen guztien kopurua 5 pieza soilik da. *Gara* 2012ko edukien % 15.8 a argitaratu zuen, hau da, 3 testu. *Diario Vasco* eta *Diario de Navarrak* testu kopuru berdina eskaini zioten gaiari, % 5.3a, hau da bakoitzak pieza bakarra. Beherakada itzela hauteman dezakegu grafika honetan eta inpaktu gehiena izan zuten egunkarien ordena aldatu zen, *Berria* izanik estaldura handiena eskaini zion bigarren egunkaria *El País*en atzetik, baina kontuan hartu behar da testu kopuruak ikaragarri jaitsi zirela urte honetan. Nazioartean gertatu ziren hainbat gertakari garrantzitsuk zerikusia izango zuten horretan. Siriako gerraren eztanda, Arabiar Udaberria eta Kataluniako auziaren hasierak bete zituzten egunkarietako orrialdeak kasu askotan eta ondorioz leku urriagoa eskaini zitzaion Klima Aldaketaren estaldurari.

#### 4.Grafika: 2015eko Paris-go gailurraren inpaktua


##### 2015 PARIS



Iturria: autoreak landua

2015. urtean inpaktuaren grafika askoz ere orekatuagoa dagoela ikus daiteke. *El País* egunkariak jarraitzen du testu gehien argitaratu dituen egunkaria izaten, (53 pieza). Kontuan hartu beharrekoa da ordea aurretik aipatu duguna, *El País* edizio nazional espainiarreko egunkaria da eta beraz, egunkariak berak duen tamaina edo orrialde kopurua besteak baino handiagoa da. *Deia* da atzetik dioan egunkaria, (42 pieza). Beste egunkari guztiek antzeko estaldura eskaini diote Pariseko gailurrari. Guztiak argitalpenen % 12 eta %16 aren barruan mugitzen dira; *Diario de Navarra* (34 pieza), *Diario Vasco* (27 pieza) eta *Berria* eta *Gara* (26 pieza). Informazioen kopurua askoz ere orekatuagoa dagoela nabarmendu daiteke grafika honetan. Nahiz eta *El País* eta *Deiak* beste egunkariak baino testu gehiago eskaini, estalduraren gorakada nabarmendu daiteke.

## 5.Grafika: 2021eko Glasgowko gailurraren inpaktua



Iturria: autoreak landua

2015. urtean Parisko gailurrari eman zitzaion estalduraren isla ikusi daiteke grafiko honetan. Badirudi 2015. urtean joera aldaketa bat eman zela eta estalduraren gorakadaren fasea hasi zela. *El País* da testu gehien argitaratu dituen egunkaria, (50 pieza). *Diario Vasco* da *El País*en atzetik argitalpen gehien izan dituen, (44 pieza). *Deia*-k antzerako kopuruarekin jarraitzen dio (42 pieza). *Diario de Navarra* (35 pieza). Hemen ere *Gara* eta *Berria* dira estaldura txikiena eskaini dioten egunkariak; *Gara* (32 pieza) eta *Berria* (30 pieza).

Egunkari bakoitzak testuei ematen dizkieten forma eta moldeak ere hedabideak gaiarekiko erakusten duen garrantzia neurtzeko balio du. Eduki aniztasuna kazetaritza aberats baten isla da. Jarraian aztertuko diren grafika eta taula dinamikoek urte eta egunkari desberdinetako eduki aniztasuna neurtzea dute helburu.

### 1. Taula. 1997 Kioto. Kazetaritza generoak

COUNTA de Iten Kazetaritza generoak											
Egunkaria	Albisteak	Analisia	Artikuluak	Biñeta	Editoriala	Elkarrizketa	Erreportajea	Kronika	Laburra	Zutabea	Suma total
Deia	12			1		3		1			17
Diario de Navarra	7		1							6	14
Diario Vasco	13			1	1	1		1			21
Egin	14			1	1	1	2	2	1	1	23
El País	8		2	1	1	2	3	13	1	1	33
Euskaldun Egunkaria	6				1			3			12
<b>Suma total</b>	<b>60</b>	<b>3</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>7</b>	<b>5</b>	<b>20</b>	<b>2</b>	<b>8</b>	<b>7</b>	<b>120</b>

Iturria: autoreak landua

Lehen begirada batekin argi eta garbi ikusten da egunkariak gehien erabiltzen duten eduki formatua albisteak dela. Kiotoko gailurrari buruz aztertu diren 120 itemetatik 60 albisteak dira, hau da, informazioen % 50 (*Egin* 14, *Diario Vasco* 13, *Deia* 12, *El País* 8, *Diario de Navarra* 7 eta *Euskaldunon Egunkaria* 6). Alde handiarekin nabarmentzen den beste eduki formatua erreportajea da, 20 erreportaje, edukien % 16,66 (*El País* 13, *Euskaldunon Egunkaria* 3, *Egin* 2, *Diario Vasco* 1 eta *Deia* 1). Beste eduki forma guztiak kopuru askoz urriagotan erabili dituzte egunkariak. Laburra izan da hurrengo formatu erabiliena kopuruetan, 8 guztira, baina aipatzekoa da horietatik 6 *Diario de Navarra* egunkarian argitaratutakoak izan direla. Gainerakoak bat *El País*-en eta bestea

Egin-en. Elkarrizketei eskainitako eduki kopurua 5 da, edukien % 4,16 (*El País* 3 eta *Egin* 2). Kronika izan zen gutxien erabili zen kazetaritza generoa, 2 guztira, % 1,66 (*El País* 1, eta *Egin* 1).

Iritzi alorrean ere jorratzen den gaia da klima aldaketarena. Aztertu dugun laginaren arabera, zutabe eta editorial kopuru berdina argitaratu ziren, bi kasuetan, 7, argitalpen kopuru osoaren % 5,83 (*Deia* 3, *El País* 2, *Egin* 1, eta *Diario Vasco* 1). Zutabeak ere 7 izan ziren guztira, % 5,83 (*Diario Vasco* 4, *Euskaldunon Egunkaria* 2, eta *El País* 1). Artikuluak 4 izan ziren guztira, edukien % 3,33 (*El País* 1, *Egin* 1, *Diario Vasco* 1, eta *Deia*). 4 bineta soilik argitaratu ziren, eduki guztien % 3,33 (*Diario Vasco* 1, *Egin* 1, *El País* 1, eta *Euskaldunon Egunkaria* 1). Gaiaren sakontasuna hobeto jorratu ahal izateko

analisiak eduki formatu interesgarria badirudi ere, Kiotoko gailurrean zehar argitaratu ziren analisisen kopurua oso urria izan zen, 3 analisi, edukien % 2,5 (*El País* 2, eta *Diario de Navarra* 1).

## 2. Taula. 2012 Doha. Kazetaritza generoak

COUNTA de Iten Kazetaritza generoaE					
Egunkaria	Albisteak	Biñeta	Erreportajea	Laburra	Suma total
Berria		1		2	5
Diario de Navarra		1			1
Diario Vasco			1		1
El País	5		1	3	9
Gara	3				3
<b>Suma total</b>	<b>10</b>	<b>2</b>	<b>5</b>	<b>2</b>	<b>19</b>

Iturria: autoreak landua

1997ko estalduratik 2012ko estaldurara argitalpenen kopuruaren beherakada nabarmena ikusten da. 2012an 19 testu argitaratu ziren guztira Dohako gailurraren inguruan. Eduki aniztasunaren beherakada ere nabarmentzen da, 4 eduki mota. Gailur honi buruz informatzeko erabilienak izan ziren kazetaritza generoak ere albisteak eta erreportajea dira. 19 informaziotik erdia baino zertxobait gehiago % 52,63, albisteak izan ziren, 10 guztira (*El País* 5, *Gara* 3, *Diario de Navarra* 1 eta *Berria* 1). Erreportajeen kasuan, albisteen erdiak izan ziren, 5 erreportaje, % 26,31 (*El País* 3 eta *Berria* 2). Laburrak ere 2 izan ziren guztira, % 10,52, biak *Berria* egunkarian. Binetak edukien % 10,52a izan ziren, 2 guztira (*El País* 1 eta *Diario Vasco* 1).

## 3. Taula. Paris 2015. Kazetaritza generoak

COUNTA de Iten Kazetaritza generoaE												
Egunkaria	Albisteak	Analisis	Artikuluak	Besta bat	Biñeta	Editoriala	Elkarrizketa	Erreportajea	Foto-not	Gutuna	Zutabea	Suma total
Berria	14		3			2		3	1			26
Deia	15	1	1			1	4	5	17	1	1	51
Diario de Navarra	16	2	5			1	3	1	6			34
Diario Vasco	8		3			3	2	1	9			27
El País	19	2	1	1		9	2	3	16			53
Gara	11	1	4	1		1	1	3	3	1	1	26
<b>Suma total</b>	<b>83</b>	<b>6</b>	<b>17</b>	<b>2</b>	<b>17</b>	<b>12</b>	<b>13</b>	<b>52</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>11</b>	<b>217</b>

Iturria: autoreak landua

Denbora tarte txikian estalduraren gorakada itzela antzeman daiteke. 2012. urtean Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrak iraun zuen bitartean argitaratu ziren 19 piezetatik, hiru urteren buruan 217 item argitaratzera igaro zen. Pariseko gailurra mugarri garrantzitsu bat kontsideratu zen eta hori hedabideek gaiari eskaini zioten eduki kopuruak argi eta garbi erakusten du. Taulari erreparatuz gero, testu kopuruak gora egin zuela ikus daiteke, baita edukien aniztasunak ere, mota anitzeko edukiak argitaratuz. Albisteak genero erabiliena izaten jarraitzen du, 217tik 83 albisteak izanik, edukien % 38,24 (*El País 19, Diario de Navarra 16, Deia 15, Berria 14, Gara 11 eta Diario Vasco*

8 ). Azterturiko aurreko gailurretan bezala, erreportajea da bigarren genero erabiliena, guztira 52 erreportaje, edukien % 23,96 (*Deia 17, El País 16, Diario Vasco 9, Diario de Navarra 6, Gara 3 eta Berria 1* ). Elkarrizketak edukien % 5,99a izan dira, 13 guztira (*Deia 5, Berria 3, El País 3, Diario Vasco 1 eta Diario de Navarra 1* ).

Informazio generoen artean gutxien erabili den generoa foto-notizia izan da. Foto notizia (*Deia 1 eta Gara 1* ). *Beste bat* atalean 2 informazio, edukien % 0,92 (*El País 1 eta Gara 1* ). *Garan* argitaratutakoa klima aldaketaren eraginaren puntu desberdinak azaltzen dituen orrialde osoko infografia bat da.

Argitaratutako bineta eta artikulua kopurua berdina da, 17 bien kasuan, % 7,83 . Artikuluak (*Diario de Navarra 5, Gara 4, Diario Vasco 3, Berria 3, Deia 1 eta El País 1* ). Binetak (*El País 9, Diario Vasco 3, Berria 2, Gara 1, Diario de Navarra 1 eta Deia 1* ). Editorialak hedabideak gaiarekiko duen ideologia eta pentsamendua ulertu ahal izateko tresna izanik kopurua genero honi kopuru handia eskainiko zaiola pentsa daiteke, baina Pariseko 2015. urteko gailurrean edukien % 5,52a izan ziren soilik editorialak, 12 guztira (*Deia 4, Diario de Navarra 3, Diario Vasco 2, El País 2 eta Gara 1* ). Argitaratutako zutabeak 11 izan ziren guztira, edukien % 5,06 (*Deia 5, Berria 3, Gara 2 eta Diario Vasco 1* ). Analisiak 6 izan ziren soilik, edukien % 2,76 (*El País 2, Diario de Navarra 2, Gara 1 eta Deia 1* ). Gutuna eta foto-notizia izan ziren gutxien erabilitako generoak, bi kasuetan bina , edukien % 0,92a. Gutuna (*Gara 1 eta Deia 1* ).

#### 4. Taula. Glasgow 2021. Kazetaritza generoak

COUNTA de Item Kazetaritza generoak													
Egunkaria	Albisteak	Analisiak	Artikuluak	Beste bat	Biñeta	Editorialak	Elkarrizketa	Erreportajeak	Foto-not	Kronika	Laburra	Zutabea	Suma total
Berria	17	1	1			1		4	3				3
Deia	27	1	2			1	4		4				3
Diario de Navarra	18		6			6	2		2	1			35
Diario Vasco	25		1	1		1	2	2	7		2	1	2
El País	25		3	3		4	4	3	5				3
Gara	13		2	2		2	3	2	5				3
<b>Suma total</b>	<b>125</b>	<b>2</b>	<b>15</b>	<b>6</b>	<b>15</b>	<b>15</b>	<b>15</b>	<b>11</b>	<b>26</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>14</b>

Iturria: autoreak landua

2015eko Pariseko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurretik 2021eko Glasgowko gailurrera testu kopurua igo dela ikus daiteke, baina gorakada hori oso txikia izan zen 2012tik 2015era gertatu zen estaldura gorakadarekin konparatuz gero. 2015ean baino 16 pieza gehiago argitaratu ziren pasa den urteko Glasgowko gailurrean, guztira 233. Orain arte aztertutako gailurretan bezala albistea da gehien errepikatzen den informazio genero mota, guztira 125 albiste, edukien 53,64, erdiak baino gehiago (*Deia 27, El País 25, Diario Vasco 25, Diario de Navarra 18, Berria 17 eta Gara 15* ). Alde handia


ateratzen dio hurrengo genero erabilienari. Erreportajeak edukien % 11,15 izan dira (*Diario Vasco 7, El País 5, Gara 5, Deia 4, Berria 3 eta Diario de Navarra 2*). Argitaratutako edukien % 4,71 elkarrizketak izan dira, 11 guztira (*Berria 4, El País 3, Gara 2 eta Diario Vasco 2*). Análisi eta kronika kopurua % 0,85ekoa izan da, bina informazio bi kasuetan. Análisiak (*Deia 1 eta Berria 1*). Kronikak (*Diario Vasco 2*). Kronikak (*Diario Vasco 2*).

Argitaratutako artikulua, bineta eta editorial kopurua berdina izan da, 15 hiru kasuetan, edukien % 6,43. Artikulua (*Diario de Navarra 6, El País, 3, Deia 2, Gara 2, Diario Vasco 1 eta Berria 1*). Binetak (*Diario de Navarra 6, El País 4, Gara 2, Diario Vasco 1, Deia 1 eta Berria 1*). Editorialak (*El País 4, Deia 4, Gara 3, Diario Vasco 2 eta Diario de Navarra 2*). Argitaratutako zutabe kopurua 14 izan da, edukien % 6 (*Berria 3, Deia 3, Gara 3, El País 3 eta Diario Vasco 2*).

Egunkariak sekzio desberdinetan antolatuta egon ohi dira eta sekzio batzuek beste batzuek baino garrantzi handiagoa eta pisu handiagoa izan dute betidanik. Egunkari bakoitzak gaiarekiko informazioak kokatzen dituen sekzioak, honek gaia ulertzeko duen modua eta ematen dion garrantzia neurtzeko balio du. Jarraian aztertuko diren grafiko eta taulek hori informazio hori eskainiko digute.

## 6. Grafika. 1997 Kioto. Sekzioak

### 1997 KIOTO: SEKZIOAK



Iturria: autoreak landua

1997ko Kiotoko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurra jorrazteko gehien erabili zen sekzioa *Gizartea* da, 120 testuetatik 69 atal honetan kokatu ziren, edukien % 57,5 (*El País 29, Diario Vasco 17, Deia 13, Euskaldunon Egunkaria 9 eta Diario de Navarra 1*). Atzetik *Mundua* sekzioa kokatzen da, 19 itemetatik, edukien % 15,83 (*Egin 19*). Iritzia

atalean 17 pieza argitaratu ziren, edukien % 13,33 (*Diario Vasco* 4, *Deia* 4, *Euskaldunon Egunkaria* 3, *Egin* 2 eta *El País* 4 ). *Nazioartea* sekzioa ere garrantzi handiko ataltzat jo da beti, baina atal honetan argitaratu zituzten testuen kopurua oso urria da, edukien % 5,83, 7 informazio guztira eta denak *Diario de Navarra* egunkarian

argitaratu ziren. *Eguneko Gaia* atalaren barnean kokatuta 6 pieza aurkitu dira, % 5a eta hauek ere guztiak *Diario de Navarra* egunkarian argitaratuak izan ziren. Azkenik *Ingurumena* da 1997an gutxien errepikatzen den sekzioa, testuen % 1,66a soilik, hau da, 2 item. Biak *Egin* egunkarian argitaratutakoak.


## 5. Taula. 2012 Doha. Sekzioak

COUNTA de Iterr Sekzioa						
Egunkaria	Beste bat	Eguneko gaia	Gizartea	Iritzia	Mundua	Suma total
Berria		2			3	5
Diario de Navarra	1					1
Diario Vasco					1	1
El País				8	1	9
Gara					3	3
<b>Suma total</b>	<b>1</b>	<b>2</b>	<b>8</b>	<b>2</b>	<b>6</b>	<b>19</b>

Iturria: autoreak landua

Dohako gailurrari buruz informatzeko gehien erabiltzen den sekzioa ere *Gizartea* da. Argitaratutako 19 itemetatik 8 atal honetan kokatzen dira, % 42,1, guztiak *El País* egunkarian. Atzetik jarraitzen dion sekzioa *Mundua* da, edukien % 31,5, 6 testu guztira (*Berria* 3 eta *Gara* 3). *Iritzia* eta *Eguneko Gaia* atalek eduki kopuru berdina eskaini zuten, % 10, 52. *Iritzia* (*El País* 1 eta *Diario Vasco* 1). *Eguneko Gaia* (*Berria* 2). *Beste bat* atalean pieza bakarra kokatu da, *Diario de Navarra* egunkarian, *Diario2* barne atalean.

## 7. Grafika. 2015 Paris. Sekzioak



Iturria: autoreak landua



2015eko Pariseko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrean, erabilitako sekzioen aniztasun orekatsua goa ikus daiteke lehen begirada batean. Eduki gutxien kokatu diren sekzioa *kontra-azala* da, 6 item, edukien % 2,76a (*Gara 1, Diario de Navarra 1, Berria 2, Diario Vasco 1* eta *Deia 2*). *Eguneko gaiak* sekzioan guztira 10 pieza aurkitu dira, %

4,6a (*El País 5, Diario Vasco 1* eta *Gara 4*). *Nazioartea* atalean zeinbait eduki gehiago aurkitu dira, 30, % 13,82, guztiak *El País* egunkarian. Atalik garrantzitsuenetarikoak dira *iritzia, gizartea* eta *mundua*. Azken honetan 37 testu argitaratu dira, edukien % 17,5 (*El País 1, Berria 8, Diario Vasco 16* eta *Gara 12*). *Gizartea* sekzioan berriz, 41 pieza aurkitu dira, edukien % 18,98a eta guztiak *Deia* egunkarian argitaratuak dira. *Iritzia* atalean kokatutako edukien kopuruak gora egin du 1997ko Kiotoko gailurretik. 2015. urtean *iritzia* atalean kokaturiko edukiak 45 dira, kopuru osoaren % 20,73a (*Deia 8, Gara 8, Diario Vasco 9, Diario de Navarra 7, Berria 6,* eta *El País 7*). Ohiko sekzio horietatik aldenduz, beste sekzio desberdin batean kokatutako piezak *Beste bat* atalean sailkatu dira. Horietatik 10, % 20,83 *Berria* egunkariak argitaratutakoak dira. *Harian* izena du atalak eta eguneko gai garrantzitsuen atala da beraz testu hauek *Eguneko gaiak* sekzioan sailkatzea posible izango litzateke. Egunkariak ordea, atal horren barnean beste barne atal batzuk jorratzen ditu eta *Klima Aldaketa* izeneko barne atalean kokatzen ditu 10 item horiek. Horregatik testu horiek *Beste bat* sekzioan sailkatzea hautatu da. *Diario de Navarra* egunkariko 26 item sailkatu dira atal honetan. *Diario2* izeneko barne atala da eta egunkariaren erdia baino atzerago kokatzen da gehienetan. *El País* egunkariak Pariseko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurra ospatzen ari zen bitartean klima aldaketari buruzko gehigarria argitaratu zuen *Extra Cambio Climático* izenburupean, horregatik testu hauek *Beste bat* atalean sailkatzeko erabakia hartu da. Gaiaren zeharkakotasunaz baliatuz *Ekonomia* atalean kokatu zuen pieza bat *Deia* egunkariak, eta *Gara*-k berriz *Zientzia* atalean.

## 6. Taula. 2021 Glasgow. Sekzioak

COUNTA de Iterr Sekzioa								
Egunkaria	Beste bat	Eguneko gaia	Gizartea	Iritzia	Kontra-azala	Mundua	Nazioartea	Suma total
Berria			5		4	1	20	30
Deia					9	2	31	42
Diario de Navarra	18				8	6	3	35
Diario Vasco	5	17			6		16	44
El País	3			39	8			50
Gara		14			9	3	6	32
<b>Suma total</b>	<b>26</b>	<b>36</b>	<b>39</b>	<b>44</b>	<b>12</b>	<b>73</b>	<b>3</b>	<b>233</b>

Iturria: autoreak landua

2021eko Glasgowlako Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrari buruz 233 testu argitaratu ziren guztira aztertu den egun tartean. Eduki kopuru handiena *Mundua* sekzioan kokatzen da, 73 pieza guztira, edukien % 31,33 (*Deia 31, Berria 20, Diario Vasco 16* eta *Gara 6*). *Iritzia* atalean 44 eduki aurkitu dira, % 18,88 (*Gara 9, Deia 9, El País 8, Diario de Navarra 8, Diario Vasco 6* eta *Berria 4*). *Gizartea* sekzioa da hirugarren ugariena. 39 informazio argitaratu dira atal horretan guztira, edukien %16,73, guztiak *El País* egunkarian. *Eguneko Gaia* sekzioan eguneko gairik garrantzitsuenak sartu ohi dira, beraz oso esanguratsua da hedabideak gaiari ematen

dion garrantzia neurtzeko eta honenbestez aurretik aipatutako hipotesiak frogatu edo baztertu ahal izateko. Sekzio honetan 36 testu kokatu dira, edukien % 15,45. Denak *El País* egunkarian argitaratuak izan dira. *Kontra-azala* atalean 12 item aurkitu dira, edukien %5,15 (*Diario de Navarra 6, Gara 3, Deia 2 eta Berria 1*). *Diario de Navarra* egunkaria izan da *Nazioartea* sekzioan edukiak kokatu dituen bakarra. 3 pieza guztira, edukien % 1,28.

## 7. Taula. 1997 Kioto. Azalak

COUNTA de Itern Azala				
Egunkaria	Bai	Ez	Suma total	
Deia		1	16	17
Diario de Navarra			14	14
Diario Vasco			21	21
Egin		6	17	23
El País		6	27	33
Euskaldun Egunkaria		2	10	12
<b>Suma total</b>		<b>15</b>	<b>105</b>	<b>120</b>

Iturria: autoreak landua

Egunkariak azalera eramaten dituen informazioak eguneko informazio garrantzitsu eta berezianak izan ohi dira, beraz azalera eramanez diren informazioen kopurua jakitea oso esanguratsua da arestian aipatutako hipotesiak frogatu edo, ez badira betetzen, baztertu ahal izateko. *Deia* egunkariak 17 itemetatik 1 eramanez du azalera. *Diario de Navarren* kasuan, 14 piezatatik, ez du bakar bat ere argitaratu azalean. *Diario Vasco* ere ildo bera jarraitzen du, 21 edukitik bakar bat ere ez du eramanez azalera. Azalera item gehien eramanez dituzten egunkariak *Egin* eta *El País* dira. *Eginen* kasuan 17 piezatik 6, eta *El País*-en kasuan 27tik 6. *Euskaldunon Egunkariak* 10 itemetik 2 kaleratu zituen azalean. Eduki guztien artean azalera eramanez diren informazioak 15 izan dira, % 12,5a hain zuzen ere. Zifra oso urria da gaur egun hain garrantzitsua bilakatu den gai bat izanik. Hala ere, horrek argi eta garbi erakusten du gaiak nola sartzen eta ateratzen diren hedabideetako agendetatik. Izan ere, gaur egun, gaia ez da soilik ingurumen eta gizarte gai bat, agenda politikoa markatzen duen gaia bilakatu da.

## 8. Taula. 2012 Doha. Azalak

COUNTA de Itern Azala				
Egunkaria	Bai	Ez	Suma total	
Berria		2	3	5
Diario de Navarra			1	1
Diario Vasco			1	1
El País			9	9
Gara			3	3
<b>Suma total</b>		<b>2</b>	<b>17</b>	<b>19</b>

Iturria: autoreak landua

2012an azalera eraman diren edukien taula honi erreparatuz gero, lehen begirada batean ikus daiteke duela 10 urte ere, oso gutxi izan zirela azalera eraman ziren informazioak. *Berria* da informazio gehien azalera eraman zituen egunkaria 5etik 2. 2012an aztertu diren beste egunkarietako informazio guztietatik bat bera ere ez da eraman azalera, beraz, azalean argitaratu diren piezen kopurua % 10,52koa da.

### 9. Taula. 2015 Paris. Azalak

COUNTA de Iter Azala				
Egunkaria	Bai	Ez	Suma total	
Berria		8	18	26
Deia		19	32	51
Diario de Navarra		2	32	34
Diario Vasco		5	22	27
El País		18	35	53
Gara		4	22	26
<b>Suma total</b>		<b>56</b>	<b>161</b>	<b>217</b>

Iturria: autoreak landua

2015. urtean Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrari buruz azalera eraman ziren edukien kopurua % 25,8 da. *Deia* izan zen eduki gehiena lehenengo orrian kaleratu zuen egunkaria, 19 informazio (%8,5). *El País*-ek 18 item azaleratu zituen (%8,29). *Berria*-k 8 pieza eraman zituen azalera (%3,63). *Diario Vasco*-k 5 eta *Gara*-k 4 item eraman dituzte azalera. Azalera eraman ez diren piezen kopurua handiagoa da azalean kaleratu direnak baino, edukien % 74,19 hain zuzen ere.

### 10. Taula. 2021 Glasgow. Azalak

COUNTA de Iter Azala				
Egunkaria	Bai	Ez	Suma total	
Berria		15	15	30
Deia		14	28	42
Diario de Navarra		5	30	35
Diario Vasco			44	44
El País		27	23	50
Gara		13	19	32
<b>Suma total</b>		<b>74</b>	<b>159</b>	<b>233</b>

Iturria: autoreak landua

2021eko Glasgowko Klima Aldaketaren Nazioarteko gailurrari buruz argitaratu ziren testuen artetik azalera eraman zirenen ehunekoak, azterturiko beste gailurretakoa baino handiagoa da. 233 testuetatik 74 azaleratu ziren, hau da edukien % 31,75. Eduki gehien azalera eraman zituen egunkaria *El País* izan zen, 27 item argitaratu zituen azalean. Azalera eraman duen pieza kopurua eraman ez duena baino handiagoa duen bakarra da *El País* (Bai 27, Ez 23). *Berria*-k azaleratu eta azaleratu ez zituen piezen kopuru berdina dauka, bi kasuetan 15 pieza. *Deia*-k 42 itemetik 14 eraman zituen azalera, argitaratu

zituen testu guztien % 33,33-a. Gara-k 32 testu argitaratu zituen, eta horietatik 13 eraman zituen azalera, argitaratu zituen itemen % 40,62-a. Pieza gutxien azalera eraman dituen egunkaria *Diario de Navarra* da. 35 testu argitaratu zituen guztira eta horietatik soilik 5 eraman zituen azalera.

## 11. Taula. 1997 Kioto. Irudiak

COUNTA de Iten Irudi zb. Guztira						
Egunkaria	0	1	2	3	4	Suma total
Deia	12	4	1			17
Diario de Navarra	11	3				14
Diario Vasco	11	6	3		1	21
Egin	18	4	1			23
El País	13	16	2	2		33
Euskaldun Egunkaria	7	4	1			12
<b>Suma total</b>	<b>72</b>	<b>37</b>	<b>8</b>	<b>2</b>	<b>1</b>	<b>120</b>

Iturria: autoreak landua

Bizi garen gizartean irudiek geroz eta garrantzi handiagoa dute eta teknologia berrien aurrerapenekin irudiak testuaren lagungarri gisa txertatzea geroz eta ohikoagoa da. Argazki, grafika eta infografiak, ulertzeko konplikatuak edo puntu asko dituzten gaiak jorratzeko oso lagungarriak dira. Aurrean dugun taulari erreparatzen badiogu, lehen begirada batean ikus daiteke 1997ko Kiotoko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrari buruzko estalduran handiagoa izan zela inongo argazki, grafika eta infografiarik gabeko testuen kopurua (120tik 72), argazki, irudi edo infografia zutena baino (48). 48 eduki horietan gehien errepikatzen den irudi kopurua irudi bakarrekoa da (37), (*El País* 16, *Diario Vasco* 6, *Deia*, 4, *Egin* 4, *Euskaldunon Egunkaria* 4 eta *Diario de Navarra* 3). Idatzitako edukiarekin bi irudi erabili dituzten egunkarien kopurua urriagoa da, (8), (*Diario Vasco* 3, *El País* 2, *Deia* 1, *Egin* 1 eta *Euskaldunon Egunkaria* 1). 3 irudi eduki berean erabili dituen egunkari bakarra *El País* egunkaria izan da, bi eduki desberdinetan bina irudi erabili ditu. *Diario Vasco* da 1997ko Kiotoko klimaren gailurrari buruz informatzeko, eduki berean, 4 irudi batera txertatu zituen egunkari bakarra. Aipatzekoa da aztertu diren irudi horietatik guztietatik, gehienak argazkiak direla. Infografia eta grafiken kopurua 1997an oso urria izan zela ikus daiteke, argazkiekin konparatuz gero.

## 12. Taula. 2012 Doha. Irudiak

COUNTA de Iten Irudi zb. Guztira					
Egunkaria	0	1	2	3	Suma total
Berria	3	1	1		5
Diario de Navarra		1			1
Diario Vasco	1				1
El País	4	4		1	9
Gara	1	2			3
<b>Suma total</b>	<b>9</b>	<b>8</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>19</b>

Iturria: autoreak landua

2012ko Dohako gailurraren taula honek erakusten du 2012ko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrari buruz informatzeko ez zirela irudi ugariz baliatu. 19 argitalpen izan ziren guztira eta horietatik 9k ez zuten inolako argazki, grafika edo infografiarik argitaratu (*El País % 44,44, Berria % 33,33, Diario Vasco % 11,11 eta Gara % 11,11*). 19 eduki horietatik 8tan hedabideek irudi bana erabili zuten testua osatzeko (*El País % 50, Gara % 25, Diario de Navarra % 12,5 eta Berria % 12,5*). 2 irudi erabili zituen argitalpen bakarra aurkitzen da, *Berria*-k argitaratutakoa. 3 irudi eduki bertan erabili zituen egunkari bakarra *El País* egunkaria da. Argitaratutako 19 eduki horien artean guztira 13 irudi argitaratu ziren. (9 argazki, 3 grafika eta infografia 1).

### 13. Taula. 2015 Paris. Irudiak

COUNTA de Iten Irudi zö. Guztira									
Egunkaria	0	1	2	3	4	5	6	9	Suma total
Berria	8	15	1		1			1	26
Deia	21	23	3		1	2	1		51
Diario de Navarra	16	17	1						34
Diario Vasco	13	12	2						27
El País	25	19	6	2		1			53
Gara	12	10	4						26
<b>Suma total</b>	<b>95</b>	<b>96</b>	<b>17</b>	<b>2</b>	<b>2</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>1</b>	<b>217</b>

Iturria: autoreak landua

2015eko Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurraren estalduran aurrekoetan baino irudi kopuru handiagoa erabili zela ikusi ahal da taula lehen begiratu bat eginez gero. Urte honetan, handiagoa da irudi batez osaturik argitaratu diren edukien kopurua (96) (*Deia %23,95, El País % 19,79, Diario de Navarra %17,70, Berria % 15,62, Diario Vasco % 12,5 eta Gara % 10,41*), inongo irudi gabe argitaratu direnena baino (95) (*El País % 26,31, Deia % 22,10, Diario de Navarra % 16,84, Diario Vasco % 13,68, Gara % 12,63 eta Berria % 8,42*). Eduki berean bi irudi argitaratu dituzten informazioen kopurua 17 da (*El País % 35,29, Gara % 23,52, Deia % 17,64, Diario Vasco % 11,76, Diario de Navarra % 5,88 eta Berria % 5,88*). Bi irudi baino gehiago eduki berean argitaratu dituzten edukien kopurua oso urria da. 3 irudirekin argitaratu den eduki bakarra *El País* egunkarian izan da (% 100) 4 irudi argitaratu dituztenak berriz bi eduki izan dira, bata *Berria*-n (% 50) eta bestea *Deia*-n (% 50). 5 irudirekin argitaratuak izan diren edukiak 3 izan dira. Horietatik bi *Deia* egunkarian (% 66,66) eta bat *El País*-en (%33,33). *Deia* da eduki berean 6 irudi erabili dituen hedabide bakarra (% 100) eta *El País*, berriz, eduki berean 9 irudi argitaratu zituen egunkari bakarra (%100). Guztira 217 argitalpenetan 176 irudi aurkitu dira, horietatik 160 argazkiak dira (% 90,90), 13 grafikak (% 7,38) eta 3 infografiak (% 1,70).

#### 14. Taula. 2021 Glasgow. Irudiak

COUNTA de Iten Irudi zb. Guztira						
Egunkaria	0	1	2	3	8	11 Suma total
Berria	11	15	2	2		30
Deia	26	16				42
Diario de Navarra	13	21	1			35
Diario Vasco	19	20	4		1	44
El País	18	22	8	1		50
Gara	15	12	5			32
<b>Suma total</b>	<b>102</b>	<b>106</b>	<b>20</b>	<b>3</b>	<b>1</b>	<b>233</b>

Iturria: autoreak landua

Aztertu ditugun beste aldagaiekin gertatu den moduan ez da alde handirik nabarmentzen 2015eko gailurretik 2021eko gailurrera, irudi kopuruari erreparatuz gero. 2015ean bezala, handiagoa da irudi batekin osatuta argitaratu diren edukien kopurua (106) (*El País* % 20,75, *Diario de Navarra* % 19,81, *Diario Vasco* % 18,86, *Deia* % 15,09, *Berria* % 14,15 eta *Gara* % 11,32), inongo irudirik gabe argitaratu diren edukiena baino (102) (*Deia* % 25,49, *Diario Vasco* % 18,62, *El País* % 17,64, *Gara* % 14,70, *Diario de Navarra* % 12,74 eta *Berria* % 10,78). Bi irudirekin argitaratuak izan diren edukien gorakada txiki bat nabarmendu daiteke. 20 izan dira bi irudirekin argitaratuak izan diren edukiak (*El País* % 40, *Gara* % 25, *Diario Vasco* % 20, *Berria* % 10 eta *Diario de Navarra* % 5). Bi baino irudi gehiagorekin argitaratuak izan diren eduki kopurua oso urria da. Hiru irudi eduki berean argitaratu dituzten egunkari bakarrak *Berria* (% 66,66) eta *El País* (% 33,33) izan dira. Lehengoak bi alditan eta bigarrenak berriz behin. Zortzi irudi argitalpen berean dituen eduki bakarra *Diario Vasco* egunkarian kaleratua izan da (%100) eta 11 irudi argitalpen berean kaleratu dituen egunkari bakarra berriz *El País* izan da (%100).

## 5. ONDORIOAK

---

Aztertu ditugun egunkarietatik (*El País, Berria, Gara, Deia, Diario Vasco* eta *Diario de Navarra*) ateratako datuekin eta arestian adierazitako hipotesi eta iker galderei erantzuteko asmoz, 1997 Kioton, 2012 Dohan, 2015 Parisen eta 2021 Glasgown ospatutako Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrek izan zuten estaldurari buruzko ondorio hauek atera dira:

1- Orokorrean 1997ko Kiotoko gailurretik 2021eko Glasgowko gailurrera estalduraren gorakada bat soma daiteke. Egunkari guztiek Kiotoko gailurrean argitaratu zituzten baino eduki gehiago argitaratu dituzte Paris eta Glasgowko gailurretan. 1997ko Kiotoko gailurrean *Deia*-k 17 informazio argitaratu zituen. *Egin*-ek 23, *Diario Vasco*-k 21, *Diario de Navarra*-k 14, *Euskaldunon Egunkaria*-k 12 eta *El País*-ek 33. 2015. urtean Parisen ospatu zen gailurrean *Deia*-k 51 informazio argitaratu zituen, *Gara*-k 26, *Diario Vasco*-k 27, *Diario de Navarra*-k 34, *Berria*-k 26 eta *El País*-ek 53. 2021eko Glasgowko gailurrean edukien kopurua oraindik eta handiagoa dela ikus daiteke. *Deia*-k 42, *Gara*-k 32, *Diario Vasco*-k 44, *Diario de Navarra*-k 35, *Berria*-k 30 eta *El País*-ek 50. Kiotoko gailurretik Dohako gailurrera ordea ez da gorakada hori gertatzen, alderantziz, estalduraren izugarritzko beherakada gertatu zela ikusten da datuetan. 2012ko Dohako gailurrari buruz argitaratu ziren edukien kopuru osoa 19koa da. Sei egunkarien artean 19 argitalpen besterik ez ziren kaleratu, horietatik 3 *Gara*-k, 1 *Diario de Navarra*-k, 1 *Diario Vasco*-k, 5 *Berria*-k eta 9 *El País*-ek. *Deia* egunkariak ez zuen inongo edukirik argitaratu 2012ko Dohako Klima Aldaketaren Nazioarteko Gailurrean. 2012. urtea korapilatsua izan zen. Nazioartean Siriako gerra zibila zen gai nagusienetako bat. Arabiar Udaberria ere gertatu zen, Egipton Mohamed Morsiren aurkako mugimendu handiak gertatzen ari ziren; Nazio Batuen Erakundeak, Palestina estatu behatzaile bezala onartu zuen lehen aldiz... Hainbat izan ziren 2012. urtean egunkarietako azalak bete zituzten albisteak. Espainiar estatuan Kataluniako hauteskundeak, PP alderdiaren ustelkeria kasuak eta osasungintzaren pribatizazioa izan ziren gai esanguratsuenetarikoak. Espainia ez da uharte bakarti bat eta nazioartean gertatzen den estalduraren gainbehera (Hernandez, Carrea, & Álamo, 2016) berdina gertatzen dela ondorioztatu daiteke aztertu diren datuei esker. Aipatu dugun lehenengo hipotesia frogatzen dela ikus dezakegu. Nahiz eta 2012. urtean beherakada itzela gertatu, 2015 eta 2021. urteetako gailurretan estaldurak gora egin duela ikusten da, argitaratu diren edukien kopuruak horrelaxe erakusten du (1997 Kioto 120 eduki, Doha 2012 19 eduki, 2015 Paris 217 eduki eta 2021 Glasgow 233 eduki).

2-Korronte ideologiko desberdinetako egunkarien artean klima aldaketaren estalduran desberdintasunik egon den frogatzea izan da bigarren hipotesia. Horretarako analisi kuantitatiboaz baliatu gara. *El País, Gara* eta *Berria* sartu ditugu lehen taldean, eta bigarren talde batean berriz *Deia, Diario de Navarra* eta *Diario Vasco*. Nahiz eta *Gara* eta *Berria* euskal egunkariak izan eta *El País* Espainiar estatuko hedabide nazionala

izan, hirurak ezkeraldeko korrante ideologikoan kokatu ditugu analisia egin ahal izateko. Datuek erakutsi dutenez, *Gara*, *Berria* eta *El País* egunkarien artean 1997ko Kiotoko gailurrari buruz 68 testu argitaratu ziren guztira, eta urte berean *Deia*, *Diario de Navarra* eta *Diario Vasco* egunkarien artean 52 pieza argitaratu ziren, hau da, % 13,33 gutxiago. 2012. urteko Dohako gailurrean ezkeraldeko korrante ideologikoan kokatu ditugun egunkarien artean 17 item argitaratu ziren eta *Deia*, *Diario de Navarra* eta *Diario Vasco*-ren artean berriz 2 pieza soilik, hau da % 78,95 gutxiago, bat *Diario de Navarra* eta bestea *Diario Vascon*. Bi urte horietako gailurretan gure hipotesia betetzen dela ikus dezakegu, *Gara*, *Berria* eta *El País* egunkariak *Deia*, *Diario de Navarra* eta *Diario Vasco* baino eduki gehiago argitaratu zituzten, % 22,31 gehiago hain zuzen ere. 2015. urtetik aurrera ordea, orekatu egiten da eduki kopurua. 2015. urtean *Gara*, *Berria* eta *El País* egunkarien artean 105 testu argitaratu zituzten, *Deia*, *Diario de Navarra* eta *Diario Vasco*-k argitaratu zituztenak baino % 3,23 gutxiago. 2021. urtean ere gauza bera gertatzen da. Ezkeraldeko korrante ideologikoan kokatu ditugun egunkariak 112 pieza argitaratu zituzten baina eskuinaldeko korrante ideologikoan kokatu ditugun egunkarien eduki kopurua 121ekoa izan zen, hau da, % 3,87 gehiago. Datu hauek ikusita ondoriozta daiteke, klima aldaketaren gaia urteak aurrera joan ahala gizarte osoari, edozein ideologia duela, eragiten eta axola dion gaia dela, ideologiarik gabekoa. Izango dira zergatiak eta konponbideak azaltzeko orduan desberdintasunak, baina bi korrante ideologikoetan garrantzitsua den gaia dela ondoriozta daiteke, arestian aipatu bezala, herrialde guztien agenda politikoekin bete-betean sartu den gaia den neurrian, egunkari guztiek egiten diote erreferentzia. Haserako urteetan bai nabaritzen da *Gara*, *Berria* eta *El País* egunkariak garrantzi handiagoa ematen diotela gaiari baina 2015. urtetik aurrera, *Deia*, *Diario de Navarra* eta *Diario Vasco* egunkariak jauzi handiagoa jo zutela ikus daiteke. Hortaz, ondoriozta daiteke, haserako urteetan klima aldaketaren gaia korrante ideologiko ezkerrean gehiago axola zen gaia zela, baina azken urteotan garrantzi hori handituz joan dela gizartean eta gaur egun jada ez dela betetzen adierazi dugun bigarren hipotesia, eskuinaldeko korrante ideologikoko egunkariak ere garrantzi handiagoa ematen baitiote gaiari.

3-Edukien forma eta lekuari dagokionez, urteak aurrera joan ahala, aniztasun handiagoa dagoela ondoriozta daiteke. Kiotoko gailurrean 10 kazetaritza genero desberdin erabili ziren edukiak argitaratzeko orduan: albistea, erreportajea, elkarrizketa, laburra, editoriala, zutabea, artikulua, bineta eta analisia. Eduki horiek kokatu ziren sekzioei erreparatuz gero, 6 sekzio desberdinetan kokatu zirela testuak ikusten da: gizartea, mundua, iritzia, nazioartea, eguneko gaia eta ingurumena. 2015. urtean mantendu egiten da erabili ziren kazetaritza genero kopurua, 10: albistea, erreportajea, bineta, artikulua, elkarrizketa, zutabea, analisia, foto-notizia, bineta eta beste bat. Sekzioei dagokienez, 7 sekzio desberdinetan kokatu ziren informazioak: beste bat, iritzia, gizartea, mundua, nazioartea, eguneko gaia eta kontra-azala. 2021eko gailurrean erabili ziren kazetaritza genero kopurua handitzen da, 12: albistea, erreportajea, editoriala, bineta, artikulua, zutabea, elkarrizketa, beste bat, kronika, analisia, foto-notizia eta laburra. 2021eko sekzio kopurua mantendu egiten da, 7: mundua, iritzia, gizartea, eguneko gaia, beste bat, kontra-azala eta nazioartea. Aurreko aldagaiak aztertzerakoan gertatu den moduan



2012. urtean estalduraren beherakada eta honenbestez edukien kazetaritza generoen kopuruaren beherakada itzela ikusten da baina hori argitaratu ziren eduki guztien kopuruak izugarritzko beherakada jasan zuelako da. 2012. urtean 4 kazetaritza generotan argitaratu ziren informazioak: albistea, erreportajea, laburra eta bineta. Sekzioen alorrean ez da horrenbesteko beherakadarik; 5 sekzio desberdinetan argitaratu ziren edukiak: gizartea, mundua, eguneko gaia, iritzia eta beste bat. Azalean argitaratu diren edukien kopuruaren gorakada esanguratsua da. Lehenengo goi bileretatik azkenengo goi bileretara egunkari guztiek gaiari lotutako eduki gehiago azaleratu dituzte. 1997ko Kiotoko gailurrean edukien % 12,5 argitaratu ziren azalean, hau da, 15 pieza. 2012. urteko Dohako gailurrean beherakada bat nabari daiteke, baina hau ez da ikaragarri handia. Argitaratu ziren edukien % 10,52 azaleratu ziren, 2 eduki. 2015. urtetik aurrera nabari da gaiarekiko interes handiagoa dagoela, edukien % 25,8 azaleratu ziren guztira, hau da, 217tik 56 pieza. 2021. urteko Glasgowko goi bilerari dagokionez ere ildo beretik jarraitzen dute egunkariak. Urte horretan argitaratu ziren edukien % 31,75 azaleratu ziren guztira, hau da, 74 pieza. Mailakako gorakada ikus daiteke. Testua egunkariaren zein orrialdetan argitaratzen den ere garrantzitsua da, eskuarki, lehenengo begirada eskuin aldera egiten baita. Beraz orrialde bakoitietan argitaratutako testuak orrialde bakoitietan argitaratutakoak baino interes handiagoa piztuko duela suposatzen da. 1997ko Kiotoko gailurrean 58 izan ziren orrialde bakoitian argitaratutako piezak, hau da, edukien % 48,33. Dohako gailurrean pieza gutxiago argitaratu ziren arren, argitalpenen ia erdiak orrialde bakoitian argitaratuak izan ziren, 8 pieza, kopuru osoaren % 42,10. Parisen ospatu zen COP21ean 93 izan ziren orrialde bakoitian argitaratutako piezak, edukien % 42,85 eta Glasgowko COP26an berriz, 87, edukien % 37,33. Beste aldagaietan ez bezala, orrialde zenbakiari erreparatzean, bakoitian argitaratu diren testuen kopurua jaitsi egin dela ikus daiteke. Desberdintasuna handia ez den arren, datu esanguratsua da. Edukien tamainari dagokionez ere, azkenengo COP goi bileretan espazio handiagoa eskaini zaiola gaiari ondorioztatzen da. Orrialde ½ edo gehiago hartzen duten testuen kopuruak gora egin du 1997ko gailurretik. Kiotoko gailurrean 48 izan ziren orrialde ½ edo gehiago hartzen zituzten testuak, edukien % 40. Dohako gailurrean 19 piezatik 8 orrialde ½ edo gehiagokoak izan ziren, hau da, % 42,10. 2015eko gailurrean ere bide beretik jarraitzen da. Edukien % 49,76 orrialde ½ edo gehiagokoak izan ziren, guztira 108 eduki. Glasgowko gailurrean berriz, 113 testu izan ziren orrialde ½ edo gehiagokoak, edukien % 48,49, 2015ean baino % 1,27 gutxiago. Argazki, grafika edo infografiadun testuen kopuruak ere gora egin du azken gailurretan. Kiotoko 1997ko gailurrean 48 testutan argitaratu ziren irudiak, kopuru osoaren % 40. Dohako goi bilerari buruz 2012an argitaratutako testu guztietatik 10ek irudiren bat zeramaten, eduki guztien % 52,63. Pariseko gailurrean 217 testutatik 122 izan ziren irudiren bat izan zutenak, % 56,22 eta Glasgowko 2021eko gailurrean ere, 131 testu izan zuten irudiren bat 233tik, edukien % 56,22. Klimaren gaia jorrazteko irudiak 2012az geroztik aurrera gehiago izan direla ondoriozta dezakegu, Glasgowko azken gailurrean Kiotoko gailurrean baino % 16,22 irudi gehiago argitaratu baitira.

Datu hauekin hirugarren hipotesia frogatzen dela ondoriozta dezakegu. Erabilitako sekzio eta kazetaritza generoen aniztasuna handiagoa da 2015eko gailurretik aurrera. Egia da desberdintasuna ez dela ikaragarria, baina bai zertxobait handiagoa.

4-Terminologiari dagokionez jauzi handiena 2021eko Glasgowko gailurrean ikusi daiteke. 1997 Kioto, 2012 Doha eta 2015 Pariseko informazioetako terminologia aztertzean gehien errepikatzen den terminoa “klima aldaketa” dela ikus dezakegu. “Klima aldaketa”, “lurraren berotze” eta “berotze globala” terminoak dira gehien erabiltzen direnak egunkari guztietan. Ez dago desberdintasunik egunkari batetik bestela, guztiek terminologia berdina erabiltzen dute gaiari buruzko informazioa emateko. 2021eko Glasgowko gailurraren estalduran ordea aldaketa nabarmen bat hauteman daiteke. Egunkari batzuek “klima larrialdia” edo “krisi klimatikoa” terminologiaren erabileraren hautua egiten dute. Nahiz eta oraindik “klima aldaketa” terminoa den erabiliena, argitalpen batzuetan, bai izenburuetan eta bai testuan bertan, terminologia berria bere lekua hartzen ari dela esan dezakegu. *El País*, *Gara* eta *Diario Vasco* egunkariak dira terminologiaren aldaketa hori gauzatu duten egunkariak. Titulu eta aurretitulu edo azpтитuluerei erreparatu gero, termino zehatz batzuk behin eta berriz errepikatzen direla ondorioztatzen da. Aztertu ditugun egunkarien kasuan, tituluetan gehien errepikatzen den terminoa “klima aldaketa” da, 54 aldiz aipatzen da. “*Negutegi efektua*” edo “*lurraren berotzea*” terminoak ere erabiltzen dira baina hauen erabilera askoz ere urriagoa da. Kioto, Doha eta Pariseko gailurretan hiru terminoak aurkitu dira, erabiliena “klima aldaketa” izanik. Glasgowko gailurrean terminologia berriak sartzen hasten dira. Aurretik aipatu direnez gain “*krisi klimatikoa*” eta “*Larrialdi klimatikoa*” terminoak aurkitu dira, lehenbizikoa 6 kasutan eta bigarrena, berriz, 3 kasutan. “*Larrialdi klimatikoa*” terminoa erabili duten egunkariak *El País*, *Gara* eta *Diario de Navarra* dira. *El País*ek behin erabili du terminoa tituluari, *Diario de Navarra* ere behin eta *Garak* 4 alditan. Azpтитulu edo aurretituluen kasuan ere antzeko gauza gertatzen da. Gehien errepikatzen den terminoa “klima aldaketa” terminoa da (35 aldiz). Bigarren termino erabilienak “*lurraren berotzea*” eta “*negutegi efektua*” izaten jarraitzen dute. 2015 urtean *Berriak* “larrialdi klimatikoa” terminoa erabili zuen azpтитulu batean baina 2021. urtetik aurrera hasten da termino berrien benetako erabilera. “*Larrialdi klimatikoa*” terminoa *Diario de Navarra*n behin eta *Berrian* 5 kasutan aurkitu da 2021. urtean eta “*krisi klimatikoa*” terminoa berriz hiru egunkaritan; *Deia* (1), *El País* (1) eta *Diario Vasco* (1).

